



## MEMORIA

Udal Kultur Etxearen 2023ko ekitaldirako aurrekontua Basauriko Udaleko Ogasun, Ondare, Ekonomia Sustapen eta Merkataritza Sailak ezarritako jarraibideen arabera egin da.

Udal Kultur Etxearen 2023ko ekitaldirako aurrekontua, guztira, 3.521.836,92 €-koa da, hau da, 387.206,41 € gehiago 2022ko ekitaldiko aurrekontua baino.

Aurrekontuaren egitura Basauriko Udalak Basauriko Kultur Etxeari egiten dion ekarpenaren arabera da. Ekarpene hori diru-sarrera guztien % 84,46 izango da 2023ko ekitaldian.

Hauek dira aurrekontuaren ezaugarri nagusiak eta 2022ko ekitaldiko aurrekontuarekiko aldaketa nabarmenenak:

### KREDITU HEDAGARRIAK

Gastuen eta diru-sarrera hedagarrien aurrekontuan, diru-bilketaren ehuneko bat ordaintzeko modalitatean antzokian egiten diren ikuskizunei aurre egiteko partidak sartzen dira.

### DIRU-SARRERAK

317.206,41 euroko igoera gertatu da 2022ko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta. 2022ko ekitaldiari dagokionez, kendu egin da Udalak egindako 35.000,00 euroko ekarpena, herritarrek aurrekontua egiten parte hartzetik eratorritakoa. Diru-sarreretan aurreikusitako gainerako igoera honako faktore hauek eragin dute:

- Social Antzokian antolatutako jardueretan sarrerak saltzeagatik aurreikusitako diru-sarreraren igoera. Gehikuntza hori jarduera horiei dagokien gastuen partida handitzearen ondorio da. Jardueren kopurua handitzean, diru-sarrerak handitzea aurreikusten da.
- Eusko Jaurlaritzak udal liburategietarako jasoko diren diru-laguntzengatik aurreikusitako diru-sarrerak hobetzea. 2023ko ekitaldirako aurreikuspenak kontuan hartzen ditu diru-laguntza horiengatik azken ekitaldietan jasotako zenbatekoak.
- Udalaren ekarpena handitzea gastu arruntetarako

### GASTUAK

Aurrekontuaren I. kapitulua % 7,75 handitu da, honako kontzeptu hauengatik:

- 2022ko ekitaldiko ordainsariak.
- 2023rako zenbatetsitako ordainsari-igoeraren poltsa
- Hurrengo ekitaldian beste hirurteko bat betetzen duten langileei aplikatu beharreko antzinasunaren zenbateko berriak.



- 2023ko ekitaldiko aurrekontuan lanpostuak baloratzeko batzorde iraunkorrak 2022an hartutako erabakiak aplikatzea
- Gizarte Segurantzaren kostuan adierazitako aldaketa guztiak aplikatzea.

II. kapituluari dagokionez, gastua handitu egin da, batez ere Social Antzokiaren jarduera-partidan. Partida horren zenbatekoa nabarmen murriztu zen aurreko ekitaldietan, Covid 19ren pandemiaren eraginaren ondorioz, eta 2023ko ekitaldiko aurrekontuan 110.615,53 €-ko igoera gertatu da, 2020an aurrekontuan jasotako kopurua berreskuratuz. Era berean, hurrengo ekitaldirako aurreikusitako gastuengatik igoerak jasotzen dira (batez ere gastu juridikoak eta instalazioen mantentze-lanak, azken horiek datorren ekitaldian egin beharreko legezko ikuskapenetatik eratorriak).

III. kapituluari dagokionez, finantza-erakundeei ordaindu beharreko komisioek izandako gehikuntza jasotzen da.

VI. kapituluari dagokionez, 2022ko aurrekontuan aurreikusitako 35.000,00 € kendu dira, aurrekontua izapidetzeko fasean aurkeztutako herritarren proposamenei erantzuteko.



## MEMORIA

El presupuesto de la Casa Municipal de Cultura para el ejercicio 2023 se ha realizado siguiendo las directrices establecidas por el Área de Hacienda, Patrimonio, Promoción Económica y Comercio del Ayuntamiento de Basauri.

El importe total del presupuesto de la Casa Municipal de Cultura para el ejercicio 2023 asciende a 3.521.836,92 € lo que supone un incremento de 387.206,41 € respecto al presupuesto del ejercicio 2022.

La estructura del presupuesto está determinada por la aportación que el Ayuntamiento de Basauri realiza a la Casa Municipal de Cultura de Basauri. Dicha aportación supondrá en el ejercicio 2023 el 84,46 % del total de los ingresos.

Las características principales del presupuesto así como los cambios más reseñables respecto al presupuesto del ejercicio 2022 son los siguientes:

### CRÉDITOS AMPLIABLES

Se introducen tanto en el presupuesto de gastos como de ingresos partidas ampliables para hacer frente a los espectáculos que se realicen en el teatro en la modalidad de pago de un porcentaje de la recaudación.

### INGRESOS

Se produce un incremento de 317.206,41 € respecto al presupuesto del ejercicio 2022. Respecto al ejercicio 2022 se elimina la aportación del Ayuntamiento por valor de 35.000,00 € derivada de la participación ciudadana en la elaboración de los presupuesto. El incremento previsto en los ingresos se debe a los siguientes factores:

- Incremento de los ingresos previstos por venta de entradas en las actividades organizadas en el Social Antzokia. Este incremento se debe al aumento de la partida de gastos correspondiente a estas actividades. Al aumentar el número de actividades se prevé un incremento de los ingresos.
- Mejora de los ingresos previstos por subvenciones a recibir desde el Gobierno Vasco para las bibliotecas municipales. La previsión para el ejercicio 2023 tiene en cuenta los importes recibidos por estas subvenciones en los últimos ejercicios.
- Incremento de la aportación del Ayuntamiento para gastos corrientes.

### GASTOS

El Capítulo I del presupuesto se incrementa un 7,75% al incorporarse al presupuesto los siguientes conceptos:

- Retribuciones del ejercicio 2022.
- Bolsa de incremento retributivo estimado para 2023.
- Nuevos importes de la antigüedad a aplicar en el próximo ejercicio a los trabajadores/as que cumplan un nuevo trienio.



- Aplicación en el presupuesto del ejercicio 2023 de los acuerdos del Comité Permanente de Valoración de Puestos de trabajo adoptados en 2022.
- Aplicación de todas las variaciones indicadas en el coste de Seguridad Social.

En el Capítulo II se produce un incremento del gasto que se concentra básicamente en la partida de actividades del Social Antzokia. El importe de esta partida se había visto notablemente reducida en ejercicios previos por el impacto de la pandemia de Covid 19 y en el presupuesto del ejercicio 2023 se produce un incremento de 110.615,53 € recuperando la cifra presupuestada en 2020. Así mismo se recogen incrementos por gastos previstos para el próximo ejercicio (principalmente gastos jurídicos y mantenimiento de instalaciones, estas últimas derivadas de las inspecciones legalmente obligadas que hay que afrontar el próximo ejercicio).

El Capítulo III recoge el incremento sufrido por las comisiones a abonar a las entidades financieras.

En cuanto al Capítulo VI se eliminan los 35.000,00 € previstos en el presupuesto 2022 para atender a las propuestas ciudadanas presentadas en la fase de tramitación del presupuesto.